





ORRATX 800!


LEZOKO ALDIZKARIA


1203 - 2003



800 URTEKO ARTELANA

San Joan Bataiatzailearen eliza zen Lezora hurbiltzen zirenean ikusten zuten lehenengo artelana. Gaur egun eraikin berriez inguratuta egon arren, oraindik bere nortasuna erakusten digu eta etxe guztien gainetik Lezoko ikuspegiaren ikurra izaten segitzen du.





800 ARTEA

ORRATX! - LEZOKO ALDIZKARIA

2 0 0 3 K O M A R T X O A
ZENBAKI BEREZIA

Aldizkari honek erakunde honen laguntza jaso du:



Lezoko Unibertsitateko Udala

NON ZER

- 4 **zirika**
- 5 **erreportajea**
Baserriak, eguneroko artelanak
- 6 **elkarrizketa**
Irene Salaberria eta Agustina Pontesta Elias Salaberriaz



- 10 **erreportajea**
Lezoko elizetako altxorak



- 14 **ze berri**
- 16 **erreportajea**
Lezoko letra-gizonak
- 19 **erreportajea**
Gerraurreko antzerkia
- 20 **azoka**
- 21 **moko goxo**
graffitti bat nola prestatu

BERTSOAK

Artea eta artistak
Doinua: Edozein zortziko haundi

Orratxletik dei egin didate, nigan sortuz nahiko kezka Arteai buruz bertso lantxo bat, egin ahal dudana galdezka. Arlo honetan ez jakina naiz, baina zerbait nahi dut presta. Irudimena dantzan jarriaz, zertan burua ez freska

Zehatz-mehatzik ez dakit artez, zerbait bai artelariaz. Herri hontako konposatzaile, musiko, margolariaz... Lezoko Korpus Prozesioa, famatua da egiaz. Koadro egile haundia berriz, Salaberriar Elias

Artea arte izango bada, artistak egina dizu. Konposatzaile on ugaria, organoan guztiz maisu. Mezak, poema sinfonikoak, koru kantu zer ez aizu? Arte kontuan goi mailakoa ez al da Tomas Garbizu?

Besteak beste hau ere jaino dena Lezoren altzoan. Euskal Herrian bihotzean da txistu-danbolin besoan. Zenbat kontzertu ote darama hain aho sapa gozoan? Gure Polentzi Gezala arte ereintzan mundu osoan

Horra ba nire apurra egin agindu nuen bezala. Itxas haunditan sartu naiz eta hau bakarrik da kresala. Ez jakinaren atrebentzia mesedez inork ez sala... Norbait mindurik utz nezakeen arren barkatu dezala

XANTI ZABALA "LEKO"

ATARIA

Atzeak erakusten du aurrea nola dantzatu

Gure herriak 800 urte bete omen ditu, hala diote behintzat paperek. Orratx! aldizkariak 800 urte horietatik 7 besterik ez ditu bizi, proportzioan tiki alajaina. Aldizkaria argitaratzen hasi zen lan taldearen asmoa azken berriak, puri-purian zirenak argitaratzea izan bazen ere, ez dugu ahaztu nahi izan historiari errepasotxo egitea. Ez dakigu orain arte argitaratutako 61 zenbakietan historia gordetzeko erabili dugun modua egokiena izan den, baina aproposena dela pentsatzen dugu. Oraindik herrian gora eta behera dabilen jendearekin egon, eta gazte-gaztetatik zer egiten zuen galdezka ibili gara. Lan horretan arituta konturatu gara, eta baita baloratzen ikasi ere, herria nolakoa zen, Kale Nagusiak zuen garrantzia, Atzekoatek oraindik ere duen xarma zein garrantzitsua zen, jaiak antolatzeke moduak, euskal kulturarako zegoen grina eta beste hainbat kontu interesgarri. Askok, egun, ikasgai moduan hartu beharko genituzkeen lezioak jaso izan ditugu gure orrietan, atzeak erakusten baitu aurrea nola dantzatu. Lan horretan ari ginela, "Lezok 800" batzordearen proposamenari erantzuteko asmoz eskuartearen duzun Orratx 800! zenbaki monografiko berezia moldatzeko erabakia hartu genuen. Aurten lau zenbaki argitaratuko ditugu, herriaren 800 urteak errepasatu nahian. Ohiko zatiketa kronologikoa egin baino, gaikako sailkapen bat egitea egokiago dela iruditu zaigu. Asmatu dugun zuek esan beharko duzue, gure aldetik lan hau mimo eta gogo handiz egin dagoela besterik ezin dugu esan. Hemen duzue herriko arteari buruz eginiko lantxoak zuen gozamenerako... Elizetan dauden altxorak, herri-kanpora eramandakoak, eraikinak, baserriak, armariak... Artelan bat nola egiten zen lekuko izan ginen, Txillidak herrian tailerra izan zuela jakinaraziko dizuegu. Lezok eman duen artista handienetarikoa buruzko hitzaldi baten berri dauka eta herrikide batek egindako grabatu bat aurkeztuko dizuegu. Hemen azaltzen dena hurbilpen arina baino ez da. Gehiago jakin nahi baduzue, liburu zerrenda proposatzen dizuegu, edo are hobeto, kalera atera, Lezoko artea guztion eskura dago eta.

IÑAKI BERRIO ZABALA



1 Artista ala artisaua?

Ez bata, ez bestea, afizionatua eta maila ttikikoa

2 Nola irudikatuko zenuke Lezo egur-taila batean?

Lasaitasuna da nabarmenduko nukeena. ez dakit nola, oso zaila da.

3 Egurra landuz kirola egiten al da?

Ez, oso samurra da. Behar dena pazientzia handia da, baina indarrrik edo esfortzu fisikorik ez.

4 Baratza ala egurra?

Goizean baratzean eta arratsaldean egurrekin. Bietan

Ttanttoka.


ANDER LEON

HAMAR GALDERA XELEBRE

NOR: JOXE JOAKIN SARASUA

NOLA: JOXAKIN

ZER: TAILA EGILE "AFIZIONATUA"



oso gustura ibiltzen naiz, baina probetxu handiegirik ez diet ateratzen.

5 Zer egur mota erabiltzen duzu?

Gehienetan haritz amerikanoa. Batzuetan pagoa edo lizarra, baina jeneralean haritza.

6 Negozio ona al da egur-tailak saltzea?

Ez, enkarguak egiten ditut eta prezioak adosten ditugu. Baina honekin ez naiz aberastuko

7 Taila abstraktuak egiteko prest al zaude?

Niri horrelakoek ez didate

ezer esaten, hori ez dut ulertzen. Nik irudiak, kutzak, erlojuak eta horrelakoak egiten ditut

8 Nori emango zenioke egurra?

Askori bai. Batzuek Euskal Herria zapaltzen ari dira eta ezin gaituzte ikusi. Mordoska horiei bai

9 Gaia egurraren arabera edo egurra gaiaren arabera?

Egur puskek erosten ditut eta bertan markatzen ditut marrazkiak. Gero lantzen hasten naiz. Egurra tamainaren arabera erosten dut

10 Artistek erretirorik hartzen dute? Noiz?

Momentuz oso gustukoa dut, ez dut uzteko asmorik, agian, aspertzen naizenean ... baina biharkoa ezin da esan •

Argazki inkesta.

ANDER LEON / IÑAKI BERRIO

Lezoko kaleetan herriko artelanei buruz galdezka ibili gara. Galdera zaila izan arren, hona hemen jaso ditugun erantzunak.

Lezoko artelanen artean zein nabarmenduko zenuke?




EUGENIO OLAIZOLA

Nik gutxi dakit, ez dut ezagutzen. Arkitekturen ez diot kasurik egiten. Eskulanak gustatzen zaizkit, batez ere egurrezkoak direnak.



XABIER FERNANDEZ

Artea ba al da Lezon, ala? Elizak, bi elizak, aparte ez dut uste gauza gehiago dagoenik.



IVAN HERNANDEZ

Ez dut ezer ezagutzen. Bueno, eliza bai, kanpotik, baina pintura eta hori ez



FELIX NARCISO

Ez dut gehiegi ulertzen. Elias Salaberriaren koadroak, bi elizak, Gurutze Santuarena eta San Joan Bataiatzailearena, ... baina nik horretaz ez dut ulertzen.



MERTXE LOPEZ

Zer dago ba? Gurutze Santua nahiko ezaguna da. Ni lehen ez nintzen Lezon bizi eta ezagutzen nuen. Eliza ere polita da, baina saildua da ospetsuena



PILI LEGORBURU

Bi elizak kenduta ez dakit, Portu aldean badago zerbait baina ... Ah, eta musika sartzen bada bai dakidala, baina ezagunena Gurutze Santuaren irudia da.



MARIA ISABEL LOJO

Gurutze Santua, saildu moduan. Debozio handia diot. Han ezkondu nintzen eta nire alaba han bataiatu zuten. 32 urte daramatzat ile-apaindegian. Herria orokorrean gustuko dut.



JUANJO ARRAIGO

Artelanak? Mota asko dago hemen, elizak, zenbait etxe eta batez ere emakume talde batek egiten dituen ispiuak, markoak, ... Baserri batzuk ere bai, adibidez orain dela gutxi berriro duten Gaintza baserria

GURE BASERRIAK: EGUNEROKO ARTELAN

Baserria betidanik bizimodu gisa ezagutu dugu, polita, bukolikoa eta gogorra. Baina artikulu honetan aztertuko duguna eraikina izango da, hau da, baserria arkitektura artelan bezala. Horretarako, 2000. urtean Aitziber Muruak argitaratu zuen Lezoko baserriak liburua hartu dugu oinarri.

Gaur egun ezagutzen ditugun baserriak harrizkoak edo adreiluzkoak dira, eta badirudi betidanik izan direla horrelakoak, baina XV. mendearen bukaera arte eraikin gehienak egurrezkoak ziren, eta hortik aurrera aldatuz joan ziren, zurezkoek sua erraz hartzen baitzuten. XVII. mendearen erdialdera arte eraikitako baserrietan behetik hasi eta etxebizitzaraino iristen ziren habe izugarriez osaturiko eskeletoa aurki liteke. XVII. mendeko bigarren erdian eta XVIII. mende hasieran, zeharkako zutoinak eusteko, zuhaitz sardaskak eta kurbadun besoak aurki litezke. Ondorengo urteetatik aurrera, egurrak euskarri gisa zuen lekua galdu zuen harrilana nagusituz joan zen eran. Kanpoaldeari dagokionez, atal batzuk aztertuko ditugu egitura

itxurako etxeek izaten dute, aldiz, oin lauki zuzena da baserri gehienetan nagusitzen dena. Lezon lur aldapatsua eraginez, gehiengo nagusia lauki zuzen itxurako oina duten baserriek osatzen dute.

Teilatu arruntena bi isurialde edo bi maldatak da, gailurra etxaurrekiko perpendikularrean duena. Lezon hiru isurialdeko bakarra Arriaundi baserria da, gainontzekoak bi isurialdekoak dira. Teilatu gainean tximinia egon ohi da. Hauek XVIII. mendetik aurrera hasi ziren eraikitzen, hau da, baserriko gelak goiko solairura igo eta beheko solairua sukaldetarako bakarrik erabiltzen hasi zirenetik. Batzuetan bi tximinia agertzen ziren, bata sutondorako eta bestea ogia egiteko labearena.

Euskal Herriko baserri gehienek, klimaren eraginez, ez dute neurri handiko balkoi eta leihorik. Dena den, argia beharrezkoa zenez, baserria norabide onean eraikia izaten zen. Etxebizitza eguzkiari begira kokatzen zen eta ondorioz leiho eta balkoiak hego-ekialdetik hego-mendebalderako norabidean kokatzen ziren. Era askotako leihoak aurki daitezke Lezon, baina gehienak egurrezkoak eta eraberrituak direla esan dezakegu.

Barne egiturari erreparatu hiru ziren zonalde nagusiak. Familiarentzako tokia, ikuilua eta gauzak pilatzeko guneak edo biltegiak. Hasiera batean familiarentzako tokia beti beheko solairuan izaten zen, logelak goiko solairuan eraikitzea azken 150 urte hauetako aldaketa izan da. Etxebizitza bi zatitan banatzen zen, sukaldea eta logela (1850 arte gutxi gora-behera logela bakarra izaten zen). Komuna berriz XX. mendeko berrikuntza da.

Ikuilua baserriaren erdia baino gehiago zen. Abere bakoitzak egurrezko itxutura bat zuen. Ikuilura ezkaratetik zuzenean sartzen da, ez du

leihorik izaten eta arnasa hartu ahal izateko zulo estuak besteirik ez. Biltegiak baserri osoan zehar aurki daitezke: sabaia, mandioa, ganbara edota upategia, hots, teilatutik bodegara. Bakoitzak bere produktuak gordetzen zituen, baina denboraren poderioz, aldaketak egin dira (adibidez Amerikatik etorri ziren artoa eta patatari lekua egiteko). Lezon aurki dezakegun berezitasun bat dolarearena da, askotan baserrian bertan ekoizten baitzen kontsumitu beharreko sagardoa.

Hau izan da Lezoko baserriari hurbilpen artistikoa. Gehiago jakin nahi duenak arestian aipatutako liburua irakurgai du, edo bestela herriko baserrietara hurbildu eta bertan egiaztatu hemen azaldu ditugun ezaugarriak •



hobeto ulertzearren. Jende aberatsen baserriak harrizkoak ziren, etxaurrea, sukaldea eta gela gehienak beheko solairuan izaten zituzten, haritzeko zutabe egitura eta egurrezko fatxada. Aurreko fatxada zen baserriari nortasuna ematen ziona. Jabeak bertan adierazten zuen sendiaren nortasun, aberastasun eta handitasuna. XVIII. mendean arkupedun baserriak eraikitzen hasi ziren eta ateondoek arkuak zituzten. XIX. mendetik aurrera baserriak gaur egun ezagutzen ditugunen antzera hasi ziren eraikitzen, bizitzeko askoz erosoagoak baitira.

Oinaz hitz egiten badugu, garai batean oin karratuko baserriak ziren nagusi, baina denbora pasa ahala eta baserriak handituz joan ziren eran, oina aldatu egiten zen. Oin karratua dorretxe

ELIAS SA Salaberriatar



LABERRIAZ

rarekin



Elias Salaberria aparteko margolaria izan zela esatea ez da gauza berria. Horregatik pertsonari heldu nahi izan diogu oraingoan. Horretarako, ezagutu zuen herritar batengana jo dugu, Irene Salaberriarengana, hain zuzen ere. Arratsalde batean Agustina Pontestarekin gelditu zen "osaba Elias"i buruz hitz egiteko. Hona elkarrizketa haren emaitza.

Agustina: Herriko zahar nola naizen beti horrelako gauzak egiteko dei egiten didate Orratxeok

Irene: Ez da hori ez, haiek dira gazteak eta ez zu zaharra...

Agustina: Tira, tira, ez gara horretaz mintzatzeri etorri. Zure osaba Elias akolito hasi zen elizan...

Irene: Bai, garai hartan gehienak izango ziren akolitoak, txandaka edo, ibiliko ziren. Apaizak aparteko trebetasuna ikusiko zion eta Gurutze Santura etortzen zen Marqués de Cubasi esan zion eta honek laguntza eman zion pintura ikasketak egin ahal izateko, beka bat edo. Geroztik Donostiara joaten zen egunero oinez.

Agustina: Nork bidaliko zuen? Pildain batek bai. Liburuetan Eusebio idatzita dago, baina uste dut Antonio izango zela

Irene: Ez, ez. Pentsatzen dut Antonio, Kanarietako gotzaina izan zena, Eliasen garaikoa zela. Beraz, horren osaba edo izango zen bidali zuena, Eusebio Pildain

A: Marqués de Cubas ez ezik, jende inportante asko etortzen zen garai hartan Gurutze Santura, aristokratik, enbaxadoreak eta abar. Donostiara beranean etorri eta Gurutze Santura Lezora. Aipatutako markes hori hil eta gero Madrilera joateko aukera izan zuen, ezta?

I: Bai, bera Madrilera joan zen, baina urtero urtero etorri izan zen Lezora, ez zuen inoiz hutsik egin. Gu zain egoten ginen eta egiten genuen lehenengo gauza eskolan-eta egiten genituen marrazkiak erakustea izaten zen ea berak zer esaten zigen. "Hau nondik atera duzue?" Eta gu beti kopiatuta, beti kopiatuta. Karameluak ere ekartzen zizkigun, horiek laranjazko-

ak eta limoizkoak ziren horietakoak, oso goxoak ziren. Ni ez naiz oso ondo gogoratzen, nire senideak hobeto gogoratzen dira, baina ni oso ttikia nintzen. Ameriketako osaba bezalakoa zen, beno, Madrilgo osaba, hobeto esanda

A: Nolakoa zen? Nik zorrotz tankera hartzen diot, serioa...

I: Keba, keba, guretzako ez. Hori esaten dutenek ez zuten ezagutzen. Igual estudioko erretratuetan bai, badakizu, jarri honela edo ipini eskua horrela eta serio itxura hartzen zuen, baina guretzat ez zen batere zorrotza. Begira, adibidez berak irakatsi zigun "La raspera" dantzatzan, garai hartan Madrilen modan zegoen dantza.

A: Familiarekin segituz, amarentzako shock handia izango zen horrelako semea izatea

I: Bere ama bai, oso serioa omen zen, ez zuen gauza handiegirik espero semearengandik, Lezo batetik Madrilera joanda. Alde egin zuenean, esan omen zion "Zuk bidalitako sosekin txokolate gutxi jango dugu". Ez zen batere baikorra ez.

A: Eliasck estudioa zuen Lezon eta lagun asko pasatzen zen hortik...

I: Bai, Kale Nagusian, kilometroaren ondoan, bota zuten etxe hartan. Dagoeneko ez da existitzen, argazkietan besterik ez.

A: Bai, nire ama eta lagunak estudioa joaten omen ziren kuxkuxeatzera, eta haiek bezala, jende asko.

I: Nahi zuena bai, osabak ez zuen inor bidaliko behintzat.

A: Herriko jendea erabiltzen zuen modelo gisa...

I: Bai, berak kalean ikusi edo mezatan, gehienetan mezatan, kalean gutxitan ibiltzen baitzen. Jendea ikusi eta aukeratzan zuen estudioa joateko eta bertan posatzen edukitzen zituen orduak eta orduak koadroak egin ahal izateko.

A: Zu zeu atera zara koadroren batean, beno zu eta zure familia osoa

I: Bai koadro askotan azaltzen gara, ikusi honetan, "Pastora" koadroan nire ahizpa Ixiar azaltzen da, eta atzealdean, Joxe Inaxio, nire anaiarik zaharrena. Eta ni honetan, "En el nombre del padre"n aitaren egiten ari dena ni naiz. Hori egiteko posatu egin behar izan nuen 5 edo 6 urterekin eta geldi-geldirik orduak eta orduak eman nituen

A: "Gu" koadroan denak azaltzen dira baserritarrez jantzita eta bera, ordea, trajarekin eta kapelarekin, horrek ez dauka ha-

rokeria puntu bat, ni hauek baino gehiago naizela esanez?

I: Ez, erretratua da, bera eta bere guraso eta senide batzuk azaltzen dira, eta bakoitza jeneralean jantzen zen moduan irudikatuta dago. Bera Madrilera joan zen, eta han, esate baterako bere alaba kontsul batekin ezkondu zen. Bestelako bizimodu zuten, eta hori koadroetan islatzen zen.

A: Elias Madrilen ez ezik, Parisen, Londresen, Hegoamerikan ere ibilia zen

I: Bai, Argentina eta Montevideo aldera joan zen. Han erakusketak egin zituen, eta bide batez, arreba bisitatu...

A: Arreba hori ez zen Gasteizera joan ba?

I: Bai, baina bertan Araiako mutil bat ezagutu, berarekin ezkondu eta Argentinara joan zen josteko makina eta guzi eramanda. Izeba Gregori bisitatzera joan zen Elias Argentinara enkusketak egiten zituenean.

A: Beno, badirudi kanpora joateak on egin ziola, nortasunaren aldetik behintzat.

I: Bere estiloa beti oso iluna izan da, kolore ilunak baina azken etapan badirudi alaiago zebilela, kolorearen alderik behintzat, baina bere koadroak ilunak izan arren, ondo bereizten ziren gauzak, badirudi har ditzakezula, baina nik teknikaz eta horretaz ez dakit. Familia kontua izango da, nire semea, ttikitari, ari zen eskolan marrazkiak egiten eta 7 urterekin grisak eta urdinak erabiltzen zituen, eta hori ez da normala ume batean.

A: Horiek Euskal Herriko koloreak dira, zerura begiratu edo itsasora begiratu eta beti ikusten duzu grisa edo urdina.

I: Eliasen familia ez da inoiz arrantzalea izan, baina berak ika-ragarri gustuko zuen itsasoa, eta hori koadroetan igartzen da. Bera askotan joaten zen Meipi aldera, Donibanera, apunteak hartzera edo bozetoak egitera.

A: Bai zuen familia kaletarra izan da, baina baserritar tankerakoa.

I: Beno, bai, herri ttikikoa esango nuke nik. Garai hartan Kale Nagusian denek zituzten behiak eta tolare bat ere bazegoen. Kalea ikuiluz beteta zegoen eta telarea asko zeuden, bertan emakumeek oihalak egiten zituztelarik. Elias honelako giroan jaiotzen zen eta nabaritzen zitzaion.

A: Kalean ere ez zen gehiegi ibiltzen.

I: Ez, bera ez zen tabernetan ibiltzen diren horietakoa. Osaba



Eliasek ura baino ez zuen edaten. Guk ez genuen sekula ardoa edaten ikusi etxean, eta pentsatzen dut kalean ere ez zuela edango. Gainera ez zuen maniarik, jateko adibidez, babarrunak jaten zituen, berak prestatutakoak, ez zen batere sibarita. Beno gauza arraro bat bai, beti ganbaretan eta goiko pisuetan bizi izan zen, argiaren kontuagatik izan zitekeen.

A: Merkeagoak zirelako izango zen. Diru aldetik, nola ibiltzen zen? aberastu al zen?

I: Ez, ez zen batere diruzalea izan. Dirua ez zitzaion inporta. Gauzak oso erraz eman eta asko kobratu sekula ez. Bat baino gehiago etorri zitzaion diru eske eta trenean "primeraclasen". Bera, berriz, "Correoan" etortzen zen beti, baina ez, ez gasta-tzeagatik, bera horrelakoa zelako.

A: Bai, oso herritarra izan da eta herriari ospe handia eman dio beti.

I: Orain kalea dauka herrian, baina lehenagotik bazuen bat Erreterian. Eta Getarian seme kuttun izendatu zuten Elkanoen desenbarkoko koadroa egin zuelako eta Eliasek, ordainez oso fragmento polita oparitu zion Udalari. Baina frankismo garaian inork ez zuen ikusi nahi. Goiko plazari Elias Salaberria jarri nahi izan zitoten, baina azkenean ez.

A: Bai, nik gogoan dut nola pleno hartan batek esan zuen "¿Pero ese no era nacionalista?" Eta erabaki zuten ez ematea, orduan beste batek proposatu zuen "Le pondremos plaza Dr. Fleming" Eta aurrekoak berriro galdetu zuen "¿De que opinión política era ese señor?"

I: Gauzak aldatu dira, orain plaka eta guzi daukagu etxean. Udalak jarri zuen 1968an Allerruko Kultur Taldeak bultzatuta. 500 pezetako billeteetan bere lana azaldu zen, Elcano koadroarena eta zigilu batzuetan San Francisco, beste koadro baten zatia.

A: M^a Cristina, Alfonso XIII., Franco beraren erretratu egin omen zuen...

I: Bai, eta ez dakit non egongo den, ez da inon azaltzen. Egiten zuen bitartean Francok laguntzaile, bati esan omen zion "¿Este hombre que me has mandado que es, mudo? Ez ziola-ko hitz bat bera ere egin.

A: Gerra garaian ere alde egin zuen, Valentziatik Frantziara, baina aurretik Finlandiako enbaxadan egon zen gordeta

I: Pasarte horretaz nik ez dakit ezer, igual beldurrez edo ezkutatuko zen, baina gerra bukatuta, berehala etorri zen berriro.

A: Berak egin zituen koadroen artean, gehien gustatzen zaidana Txanogorritxurena da, eta M^a Cristinarena ere bai, hor lepoko guziakin...

I: Badakizu eskuak gure izebarenak direla, ezta? Izeba Akilinarene eskuak dira. Aurpegia Erreginarena, baina esku fin horiek lezoar batenak ziren.

A: Eta zure familian badago koadro "kuttunik"?

I: Bi anaiena da niri gehien gustatzen zaidana; "Venancio y Zenon" izenekoa. Izugarri gustatzen zait. Nire lehengusu baten alabak dauka, hori niretzat onena da.

A: Bera Madrilen hil zen, ezta?

I: Bai, hil zenean, bihotzekoa edo emango zion, badakizu uztailean Madrilen bero handia eta eliza barruan igual freskoegi. Elias "San Francisco El Grande" elizako ganga errestauratzen ari zen andamio baten gainean. Giltza izango zuen nahi zuenean sartu eta atera ahal izateko. Egunak pasata, fraideren bat aspaldian ez zuela ikusi kon-turatu zen, andamiora igo eta bertan topatu zuen hilda.

A: Liburuetan uztailearen 14an hil zela azaltzen da, baina benetan 12an izan zen heriotza, aurkitu orduko bi egun zeramatzan hilik eta.



I: Bai, hala izan zen. Entierro handia izan zuen Madrilen baina Gipuzkoako Diputazioko eta Lezoko Udaleko inor ez zen azaldu, agian politika kontuagatik. Familakoak, nire aita, Eliasen alaba eta Gasteizko bi lehengusuak joan ziren. Semea, berriz, ezin izan zen joan, Argentinan baitzegoen garai hartan. Jende famatu asko joan zen, artistak, katedratikoak...

A: Bai argazkietan igartzen da. Begira, hemen azaltzen dena Koldo Mitxelena bera dela uste dut...

I: Ez, ez hori nire lehengusua da, José.

A: Ezetz, hori Mitxelena da, nik galdetu dut eta baietz esan di-date.

I: Keba, keba, seguru seguru ezetz...


Eta horrela jarraitu zuten gauza gehiago kontatzen, oso interesgarriak guziak ere baina espazio arrazoiengatik elkarriketa atsegin hori ikusi eta entzun genuenon artean geldituko dira •





Bi elizetako altxorretan murgildurik

Hainbat mendetan, sortutako artelan gehienak inguruko elizetan eraikitakoak izan ziren. Baditugu horren adibide argiak. Herriko Gurutze Santuaren Basilika eta San Joan Bataiatzailearen parrokia altxorrez beteak daude, Lezoko historiañen parte bilakatu direlarik. Aberastasun handiko lanak daude bi elizetan, urteetan gaineratzen edo gehitzen joan direnak.



Gurutze Santuaren basilika, jatorrian, hesi eta arkupedun ermitatxo bat izan zen. XVI. mendean bukaeran, gurutzesarekiko debozioa dezente hazi zen. Harlanduzko basilika berri baten lanak egiten hasi ziren zaharra zegoen lekuan, oin berriarekin, koruarekin, eritegia, sakristia eta bi zutabeko arkuperekin. Eraikin berriaren lanak Pedro de Zalduak gidatu zituen. Agiriak ez datoz bat lanak zein urtetan hasi ziren zehazterakoan, 1584, 1595 eta 1608. urteak ageri baitira pape-retan (hirugarrena da fidagarriena). 1619. urtean hil zen Pedro de Zaldua, eliza bukatu eta gutxira. Ez zegoen erabat amaituta, ordea. 1625. urtean dorrea bakarrik falta zen. Eta 1650ean Juan de Zialceta hesigileak 9.873 libra-ko pisua duen hesi ederraren eraikuntza bukatu zuen. Hesi horren kontratuko agirian azaltzen den bezala, detaile guztiak zaindu zituzten, Bernabe Cordero eta Francisco de Isasik diszinatutako konposizioari jarraituz. 1682. urtean, elizaren bigarren alde

arkitektonikoa amaitu zen. Barnean artelanak gaineratzen joan ziren mendeak aurrera egin ahala.

Urte luzetan Santo Kristori herritarrek izan dioten debozioak, Gipuzkoako gurutze santuaren irudietan prestigiotsuena-takoa bihurtu du beheko elizakoa. Irudia XV. mendean amaieran egina dela diote ikerlariak, kondairaz beteriko sorrera duelarik. Ahoz ahoko tradizioak bi azalpen ematen ditu irudiaren agerpenaren gainean: batek herriko kaiko uretan santuarekin izandako topo egite batekin lotzen du, eta bigarrenaren arabera, Baionako San León gotzainak ekarri zuen irudia herrira. Handik aurrera, irudiaren debozioak sortutako adibide ugari daude. Lope de Isastik 1625an kontatzen duenez, "ehun urte baino gehiago dira irudiak mirariak egiten dituela, hain da errukarria, debozioz begiratzen dion jendeak negarrez amaitzen baitu". Edo oraintsu arte elizan zintzilikatuturik ezagutu ditugun eskerrak emateko oroigarriak, plaka, makulu eta abar.

Elizako beste elementu garrantzitsu bat erretaula nagusia da. Santiago de Jauregi eskultoreak 1772. urtean egin zuen lanak arku forma jarraitzen du, basilikaren kapera nagusiak bezala. Discinu elegantea eta rokoko estilo nabarmena du. Miguel de Irazusta arkitektoak XVIII. mendean Gipuzkoako elizetan ezarritako joerari jarraitzen dio erretaulak. Alboko bi erretaulak ere Jauregik eginak dira, hauek ere rokoko joerakoak diren arren, erretaula nagusia baino urriago dira apainduratan. Ebanjelioaren alboan dagoenak, Kristoren irudia azaltzen du kalbariora bidean. Maria eta Loiolako Inazioaren iru-

diak ere ageri dira. Alboko beste erretaulan, berriz, Jainkoaren semea gurutzefikatu zuten unea azaltzen du.

Bitraietan nabarmentzekoa da, bestalde, J.F. Maumejean-ek Elias Salaverriaren bozeto batean oinarrituta eginitako irudia. Bertan San Leon gotzaina agertzen da Lezoko Gurutze Santuaren aurrean. Hori da elizaren barneko artelan berrienetakoa.

Gurutze Santuaren ermita zaharra Donejakue bidetako puntu garrantzitsua izan zen hainbat urtetan. Gaintzurizketako Santiagotxo ermitatik iristen ziren erromesak. Lezoko gurutze santuaren aurrean errezoan aritu ondotik, berriz, Donostiarantz joaten ziren, handik kostaldeko edo barnealdeko Donejakue bidetara jarraitzeko. Elizaren historiaren parte dira erromesen istorioak eta Gurutze Santuari buruz ahoz aho zabalduko kondaira eta mirariak.


Azkenik, Miguel Azpilikueta Olagüek elizaren gainean eginitako azterketa historiko-artistikoa jasotzen diren ondorioak azalduko ditugu:

1) Lezoko Gurutze Santuko lan guztiak egiteko pizgarria

santuarenganako debozioa izan zen. Horri esker, gurutziltzatutako irudiaren inguruaren moldaketa eta berritze lanak egin ziren. Era berean, artelan berriak egiteko dirua eskaintzen zuen debozioak.

2) Eraikinaren egitura arkitektonikoa bi alditan banatuta dago: lehenengoa Pedro de Zalduak zuzendua 1608tik 1619ra. Eta bigarrena Domingo de Ruza y Salazarrek gidatua, 1675 eta 1682 artean. Hiru berrikuntza gaineratu ziren: ohiko erretaulari uko egin, aldare nagusian koloretako marmolak erabiltzea eta ganbaratxo egitura zuen korridorea. Azkeneko bi berrikuntzek barroko estiloa agerian uzten dute.

3) Jesusen konpainiak elizan izan zuen eragina hainbat erataz azaltzen da. Konpainiako Francisco de Isasik burdinazko






hesia egiterakoan eta Ignacio de Errazkinek bigarren etapa arkitektonikoan parte-hartze zuzena izan zuten. Bestetik, jesuiten ikonografia alboko erretauletan azaltzen da.

4) Santiago de Jauregik eginiko erretauletan estilo mota ezberdinak azaltzen dira. Hala ere, barroko kulturaren barneko zentzu eszenografikoa nabarmena da.


SAN JOAN BATATZAILAREN PARROKIA

Lezoarrok Goiko Eliza moduan ezagutzen dugun eraikina, San Joan Bataiatzailearen parrokia, noizkoa den ez dago argi. Bere lehenengo erreferentzia idatzia 1399koa da. Domingo Joan Sanzoro Aiako hargin maisuak 1557-1563 bitartean eliza birmoldatu zuen. Nabe bakarra du Goiko Elizak, zabala eta lerdena, aurpegi anitzeko absidearekin eta aldameneko hiru kaperarekin. Bobeda gotiko estilokoa da eta 1722-1724 bitartean Joan Bautista Intxaurrendiaga eta Lazaro de Laincera hargin maisuek zizelkatutako medailoi handiz apainduta dago.

San Joan Bataiatzailearen parrokiako altxorren artean sagra-
rioia dago, aldarean ez dagoen Gipuzkoako sagra-
rio bakarra da. Trentoko kontzilioaren aginduz sagra-
rio guztiak aldarean erretaularen barnean jarri behar ziren, baina Goiko eliza-
koa aldaretik kanpo dago. Trapezio itxurako oinaren gaine-
an, irudi-zulotan Mariaren, Joserren, Jesus BERPITUAREN,
Magdalenaren eta San Joanen irudiak daude. Aurpegi San-
tuaren taula ere badu, Nekaldiaren ezaugarriak eskuetan di-
tuzten aingeruak. Lanaren bukaeran, mendi sakratu baten
erpinean bezala, pelikano handi bat dago •



Ze berri?



TXILLIDA

Arteaz ari garela, ezin albo abatera utzi bere lanaren zati garrantzitsu bat Lezon ekoiztu zuen artista: Eduardo Txillida. Larrañaga tailerretan aritu izan zen lanean eta laguntzaile talde batekin eskultura dezente egin zituen 60ko hamarkada bukaeratik 70eko hamarkadaren erdialdera arte. Herriak inspirazioa ematen ziolako etorri ote zen? Lezoartu egin nahi ote zuen bere burua? Ez dakigu, baina argi dagoena zera da, gaur egun hiri eta herri askotan aurki daitezkeen Txillidaren lanak Lezon eginak direla, lezoarren laguntzarekin. Hala ere, honen guziaren berri zabalago eskainiko dizuegu datorren Orratx-en batean, historia egin duen artista honekin lanean aritu zirenen testigantza zuzenekin.

MARK LEGASSEREN UNIBERTSITATE KUTTUNA

Jamot-enea (Kale Nagusiko 16. Jzenbakia) etxeak bere arkitektura balioaz gain, idazle bat dakarkigu gogora Mark Legasse ziburutarra. Mark Legasse Parisen jaio zen 1918an, euskal familia baten altxoan. Bere birraitonaren

anaia Rafael Zabala Gurutze Santuaren elizako kapellaua izan zen XIX. mendean bukaeran eta Jamot-enea zuen bizitoki. Hiltzean, Gaudioso Zelaia ilobari utzi zion etxea oso-osorik. Gaudioso Zelaia Marken amonaren anaia zen, Estanislada Zelaiaren anaia. Marken aitona, berriz, Hendaiako alkate eta medikua zen eta koinatu Gaudiosoi Jamot-enean astean bitan kontsulta irekitzeko baimena galdetu zion. Etxearen azkeneko solairuan jarri zuen Kamino Goienetxek kontsulta eta beheko solairuan Gaudioso bera bizi zen hain gustuko zituen musika instrumentuen artean; arpa, pianoa eta Aita Donostiak bertara etorri eta oparitutako txalaparta baztandarra, besteak beste. Aipatu pianoa Jamot-enea etxeko ganbaran egon da oraintsu arte familiaren beste hainbat tresnarekin batera, eta beste hainbat, De la Puente-Pagola sendiak kontserbatzen ditu egun. Mark eta Xanti Legasse anaiak astero etorri ohi ziren ttikitzen Hendaiatik Lezora, eta ondorioz, Markek lezoartzat ere bazuen bere burua. Bere artikulu, nobela eta idatzietan askotan aipatzen ditu Lezoko bere senideak, Lezoko kontuak, istorio zaharrak eta bitxikeriak. Lezoko kalegarbitzailearen istorioa esate baterako Santxo Abarka erregeren Jaizkibebeko ibilerak... Krutwig-en


"Vasconia" liburuan eragina izan zuen idazle honen lanik ezagunenak "Anark-herria", "Las carabinas de Gastibeltza" eta "Euskararen ebangelio eta apokalipsia" dira.

Beste loturarik ere bazuen Markek Lezorekin, izan ere, bere aita Luis zen Pesquerías Y Secaderos de Bacalao de España (PYSBE) enpresaren akzionista nagusia. Lezoar ugarik egin zuen lan enpresa horretan, bai bakailao ontzietan itsasoan, bai lehorreko lantegian. Izen horrekin ezagutzen dugun auzoa enpresako langileentzat eraikia izan zen hastapenean. Guda Zibilaren garaian, PYSBEren lau bakailao-ontzi errekisatu zizkion Euzko Jaurilaritzak enpresari Euzko Gudarosteko Bou Bizkaia, Bou Gipuzkoa, Bou Alaba eta Bou Nabarra guda ontziak izan zitezten.

1990eko apirilaren 27an omenaldia egin zitzaion gure herrian bere azken liburuaren aurkezpen ekitaldia baliatuz. 1997ko martxoaren 21ean hil zen 79 urte zituela.

ITURRIAK

Garai batean etxeko iturria Gzabaltzea eta bertatik ura ateratzea miraritzat hartutako gertaera zen. Beraz, kalera atera behar izaten zen uraren bila, eta horretarako, oraindik erabilgarri ditugun hiru iturri zeuden herriko hiru kale nagusietan, Kale Nagusian, Zubitxon eta San Juan kalean, alegia. Azken hau da herriko ondasun historiko artistikoaren katalogoan tokia duen bakarra. Hodia burdinazko plaka baten erdian duen iturria da, harrizko aulki luze baten erdian.



DONOSTIAN, BAINA LEZOARRA

Helduek gogoratuko dutenez, hirurogeiko hamarkadaren hasiera arte San Joan Bataiatzailearen elizan, alboko aldare batean, amabirjinaren eta haurren koadroa zegoen. Koadro hori desagertu egin zen eta orain gutxi arte ez dugu jakin non zegoen. "Virgen con niño" taula flandriarraren patuagatik kezkatuta egon direnen artean J.M. Irisarri dugu. Berak eman digu informazio teknikoa, eta hurrengo zenbaki batean koadroaren istorio bitxiak kontatuko dizkigu, baita artelana Lezora ekartzeko ekimen baten plangintza ere. Aipatutako koadroak "Virgen con niño" izena du, eta egun Amarako Sagrada Familia enparantzan kokatuta dagoen Donostiako Elizbarrutiko Museoa dago. Egilea ezezaguna dugu, XVI. mendekoa da eta 109 zentimetroko altuera du eta 78ko zabalera. Hiru taulen gainean margotuta dago, atzetik lotuta daudela. Bertan Amabirjina eta haurra azaltzen dira. Taularen goialdean bi aingeru aurki ditzakegu eskuetan koroa dutelarik. Koadro honen balioa kalkula ezina da, eta Lezoko herriari dagokio bere jabetza. Informazio gehiago izango duzue ohiko hurrengo zenbakietan.

LEZO ETA SANTIAGOKO BIDEA

Lezo aldizkarian Lander Zurutuzaren artikulu batean azaltzen denez Erdi Aroko garaietatik iparraldeko erromesek maiz zeharkatu izan dute Lezo, Santiagoko bidearen adar bat bertatik igarotzen baitzen. Honek izugarriko garrantzia izan zuen herriko artearen garapenean, batez ere Gurutze Santuaren elizarenean. Gaintzurizketan zegoen harrizko gurutzea pasatuz kaskorantz abiatzen ziren, orain dela 500 bat urte erromesen ostatua izan zen Apaizartza baserria igarota. Lezoko plazako Gurutze Santuaren ermitak ospe handia izan zuen Santiagoko bideko gurtza leku gisa. Honela XVI. mendearen bukaeran, eraikin zabalago baten beharra ikusita, harearizko basilika berriaren eraikuntzari eman zitzaion hasiera. Horrez gain, erromesak laguntzeko ere erietxea antolatu zen. Gurutze santuan egon ondoren, erromesak kaiko eta Bekoerrotako ontzira lekutik barrena Herrerarantz abiatzen ziren



Lezoko emakume batelarien eskutik itsasadarra igarota, beraien Santiagorako bide luzean hurrengo etaparen bila.


"AGUR JAUNAK" KANTA LEZON SORTUA DA

Rafa Bandres kazetari eta Ridazlearen arabera, gaur egungo ekitaldietan agur moduan erabiltzen den kanta ezagun hau Lezotik Euskal Herri osora zabaldua. Jaizkibel hiribidearen hasieran (Errenteria-Oreoretatik Lezorako tartean) Oarso-lbai jatetxea zegoen, eta bertan,

1892. urtean, Donibane-Garaziko melodia bat oinarritzat hartuta, gaur egun ezagutzen dugun kanta famatua osatu zen. Beraz, lezoarrok badugu harro egoteko beste arrazoi bat.


ARMARRIAK

Herriko karriketaren barrena bazabiltza, artelanak ikustea oso gauza erraza da. Burua pixka bat altxatuta, etxe askotan dauden armarriak ikusi ahal izango dituzu. Hemen azaltzen dena adibide xume bat baino ez da, gainontzekoak zuk zeuk aurkitu beharko dituzu. Zabal itzazu begiak, artea guztion eskura dago eta.



SENTIMENTUA PAPEREAN I

MENDEETAN MORDOSKA IZAN DIRA EUREN IDAZ



Literatura artetzat har daitekeen neurrian bidezko iruditu zaigu herriko letragizonei zenbaki berezi honetan beren ataltxoak eskaintzea. Herri ttikia izanik ere, izen handi asko eman ditu mundura gure herriak. Letren munduan, dela saiogintza, tratatugintza, bertso-gintza, eleberrigintza, kronikagile, dela bestelako azpi-generoren bat zazpi idazle behintzat nabarmen ageri zaizkigu historiaren orrietan. Hala ere, pentsatzen dugu Lope Isastikoaren aurretik ere izango zirela gure herrian izkiriatazaileak. Eta badakigu, ederki jakin ere, egun badirela, Patriz gain, luma ederki baliatzen duten herritarrak eta letren alorrean lan politak eginak dituztenak aldizkari nahiz liburuetan. Denak ezin aipatu, ordea, hemengo tarte laburrean eta entzutetsuenei erreperatuko diegu.

ETA JAKITURIA ZKIRIATURIK

LANENGATIK EZAGUN EGIN DIREN HERRITARRAK

LOPE ISASTIKOA

Gure egunetara iritsitako berrien arabera herriko lehenengo letragizon ezaguna. Letragizona diogu, baina berez apaiza zen, Salamancako Unibertsitatean teologian doktore. Kargu ugari izan zituen eta batzuk oso garrantzitsuak garai hartan. Iruñeko gotzaitegiaren ganbara apostolikoko fiskalá eta Madrilgo gorteko eta Toledoko artzapezpikutegiko konfessore eta hizlari izan zen, besteak beste. 1618an herriko parrokiako benefiziadu zela, Madrilgo Campofrío inkisidorearen aginduz, sorginkeriar buruzko memoria bat idatzi zuen "Relación que hizo el Doctor don Lope de Ysasti presbítero y beneficiado de Lezo, que es en Guipúzcoa, acerca de las maléficas de Cantabria por mandato del señor inquisidor Campofrío de Madrid". Bere lanik ezagunena eta garrantzitsuená, ordea, Gipuzkoari buruzko garaiko datu eta berriak eman nahian idatzi zuen "Compendio historial de Guipúzcoa" da dudarik gabe. Lan hau 1625-1626 urteen artean idatzi zuen Isastik, baina ez zuen argia ikusi 1850ean Donostian argitaratu zen arte.

FRANTZISKO GAINZA

1658an jaio zen gure herrian, eta hau ere elizgizona zen, teologia doktore. Herriko parrokiako benefiziadua izan zen, eta gerora Irungo parrokiako erretore. Orduantxe, 1738an argitaratu zuen Iruñean guganaino iritsi den bere lan bakarra: "Historia de la universidad de Irún Uranzu". Irunen hil zen 1739an.

JUAN JOXE SARASOLA "LEXO"


Gaintza baserrian jaio zen 1867an. Baserritarra izan arren, garaiko beste askok bezala indus-



trian lan egin zuen gaztetan “Real Compañía Asturiana de Minas”en hain zuzen ere. Oso umetatik zuen bertsoetarako etorria eta horretan jardun zuen plazarik plaza eta bertso jarzen ere sormen handikoa izan zen. Ehunka bertso paper egin bazituen ere, denak ez dira gorde. Antonio Zavalak Auspoa bildumako liburuki batean bildu zituen horietatik berrogaita hamar baino gehiago. 1935eko txapelketako argazki famatuan Aitzol handiaren eskubian ageri da. ehunka. Donostiara ezkondu zen 1894an eta kalegarbitzaile lanetan aritu zen bertan. Donostian hil zen 1952an.

JON GARBIZU “ZUBIGAR”

1894an jaio zen plazako Zabala-enea etxean. Garbizu anaietako bat. Erlijio, kultura eta literatura aldizkari eta egunkari ugaritan idatzi zituen bere lanak, bain Euskal Herrian, bai Ameriketara; “Aránzazu”, “Zeruko Argia”, “Euskal-Esnalea”, “Argia”, “Gure Herria”, “La Baskonia”. Gerra aurrean Aitzolek bultzaturiko euskal pizkundeko olerkarien eskola-koa zen, Lizardi, Lauaxeta, Jautarkol eta horien sokakoa. 122 olerki, ipuin batzuk, itzulpenak eta abar idatzi zituen. Ezkondu zenetik Antxon bizi izan zen. Han hil zen trenak harrapatuta 1930ean.



DANIEL GARBIZU “IRUZUBI”

1897an jaio zen, Jonen, Tomasen eta Liborioren anaia, ezagunenak aipatzearren. Jon bezain ezaguna eta oparoa izan ez bazen ere, olerki batzuk eta ipuin batzuk utzi zizkigun euskaraz idatzirik. Anaia bezala gerra aurreko olerkarien belau-naldikoa zen, bain adinez, bai joeraz. 1984an hil zen Herreran.

TOMAS GARBIZU “TEGE”

Aurreko bien anaia. 1901ean jaio zen. Musikari gisa da ezaguna Tomas, baina idazle lanetan ere oparo aritu zen. Bere bi anaia Jon eta Danielekin hirukote polita osatu zuten olerkigintzan eta bestelako idazketa lanetan. Besteen ildo bere-tik egin zuen bere bidea, baina Tomasek gehiena landu zuen alorra kazetaritza artikuluen izan zen. Musika emanaldien eta herriko gertaeren berri ematen zuen bere artikuluetan. Ipuin mordoska bat ere badu idatzirik eta olerki sorta bat ere bai. Grazia berezia zuen Tomasek kronikak eta, idazteko eta umore zorrotza bere estiloan.

Garbizutarrei buruzko xehetasun gehiago nahi duenak jo beza euren idazlanak biltzen dituen “Garbizu Anaiak” libu-rura.

PATRI URKIZU

1946an jaio zen. Hauxe da, dudarik gabe, gure herriak eman duen idazlerik oparoena eta ezagunena. Salamancako Unibertsitatean Filologia erromanikoan lizentziatua eta EHUn Euskal Filologian doktore. Herriko alkate izan den 1979-1983 legegintzaldian.

Ia denetik egin du Patrik euskal letren esparruan, ipuinak, eleberria, saioak, olerkia, edizioak prestatu... Hala ere, badira Patrik kuttun-kuttunak dituen gaiak: euskal teatroa eta Ipar Euskal Herriko idazleen aztarnen bila ibiltzea. Bere lan batzuk aipatzearren; “Euskal teatroaren historia” (1975), “Lengua y literatura vasca” (1975), “Pierre d’Urteren hizte-gia. Londres 1715” (1989), “Gramática vasca” (1996), “Zoazte hemendik” (1995), “Anton Abadiaren bizitza eta idazlanak” (2002)... Azkenaldian, Anton Abadiaren irudia ardatz hartuta ibili da buru-belarri.



ANTZERKIA LEZON



Gerra-aurreko antzerkiak aipamen tiki bat egiteko esan di-datenez, zertxobait adieraztera ausartuko naiz.

Badirudi, orain eta hemen gaudenok iraganik gabekoak gara-la, baina ez dugu ahaztu behar gure gurasoen haurtzaro eta gaztaroan ere antzerki zaleak eta antzezleak bazirela herrian, jada duela 75-80 urte. Beraz, gaurko antzezleen belaunaldiak haien oinordekoak besterik ez dira (eta zalantzarik duenak ikus ditzala garai hartako argazkiak).


Gure historia paperetan idatzirik ez badago ere, adineko hiz-tun berriemaileci esker dakigu gerra-aurrean zer nolako in-portantzia izan zuten Eusko Batzokiak (eta Elizak geroago) prestatzen zituen antzerki emanaldiak euskara eta euskal kul-tura berpiztean eta abertzaletasunaren eraginean.

Beraz, antzerkiak mintzo garelarik, lezoarrek ere inguruko he-rrietako ohiturei jarraitu zieten, eta badirudi, Donostia hurbil edukitzeak lagundu ziotela horretan. Ez baitugu ahaztu behar euskal teatroaren pizkundea Donostiako Antzoki Zaharrean kokatu eta antzerki-idazle andana sortu zela horren inguruan, hala nola: Martzelino Soroa; Serafin Baroja; Bitoriano Iraola; Toribio Alzaga, ... eta hauen idazlanak ere ugariak izan ziren. Antzezlan asko izango ziren Lezon antzezturikoak baina, gehien oroitzen dituztenak honokoak dira: Egintzak On (Amondarain); Uste diñat-Ya lo creo (Amondarain); Zalaparta (Alzaga); Ehun Dukat (Lekuona anaiak); Doilorra (Elizondo-Moliere); Txapela bete euri (Gazzel-Agirre); Euzko Gogoa (Viar-Altuna); Alma Vasca; Bihar arte ja jai! La Casa de la mu-ñeca de China; El correo del zar (Strogoff); Los Diez Manda-mientos, ...•

Eta Lezoko taldea beste herrietara joaten zen bezala, kanpo-ko taldeak ere hona etortzen ziren euren antzerkiak ematera, trukea eginez. Beraz, antzerki emanaldiak oso maiz izaten zi-ren gure herrian.

Zaila da herriko antzezleen izen guztien aipamena egitea (ba-karren bat ahaztuz gero, barkatuko diguzue), baina hona he-men adibide gisa: Gezalatarak, Pikabeatarak, Joxe Miel Tre-ku, Frantxiska Azkue, Migel Salaberria, Berasartetarak (Joan-ito, Karmen, Rosa), Inaxio Olasagasti, Maria Artola, Unzain-darrak, Joxe Intxaurrendieta, Joxe Zuloaga, Martin Alberdi, ... denak antzele bikainak, grazia handikoak, barre-algara sorra-razleak eta umoretsuak, baina gauza guztien gainetik abertza-leak ziren gure kulturaren zati garrantzitsua den antzerkiaren bultzatzaileak.

Eta euskal kultura gorpuzten ari zen unean gerra etorri eta dena zapuztu zuen, gure herria isilik edo mutu egotera be-hartu zuten behin eta berriro eta horrek euskal kulturaren apalaldia ekarri zuen, antzerkiarena barne. Baina gerra buka-tu eta euskaltzaleak lozorrotik esnatzen hasi ziren pixkana-ka-pixkanaka. 1950 aldera, Donostian M^a Dolores Agirre na-barmendu zen antzerkiaren eragilerik handienetako gisa, eta andre honen inguruan berriro ere herrietako taldetxoak sus-pertzen eta osatzen hasi ziren. Lezon ere jarraitu zuten gerra aurreko zenbait antzezleak eta hauei, gazte jendea ere elkar-tu zitzairen, Patxi Larrea aipatuko genuke, adibidez, bultza-tzaileen artean, baina modu apalago batean jarraitu zen eta etenalditxo baten ondoren oraingo ORRATX! antzerki tal-dea dugu gure artean. Katea eten zen, baina ez dute haustea lortu•



Azoka

IKUSI



IRAKURRI



ENTZUN



kritikak

MIKURA BASERRIA



Aitziber Murua

Lezoko baserrien artean Mikura (edo Minkura) izenekoa aukeratu dugu arte eredu honen adibide gisa. Herriondo bailaran kokatuta, nerri handiko familia bakarrek aintzinako baserri ikusgarria da, L itxurako oina duelarik; bi solairu eta ganbara zabal ditu, teilatua hiru isurialdekoa da eta euskarria fatxada nagusiarekiko elkarzuta da. Lezoko baserriak zaharretarikoa den hau, kareharri harlanduz eginitako eraikuntza da. Kantoietan eta hutsarteren bat inguratuz harlanduak agerian ditu, baita baseria apaintzen duten zurezko hainbat egitura ere. Sarrera nagusia fatxada nagusian alderik motzeenean du; fatxada nagusi honek eraketa simetrikoa eta hutsune ugari eta erregulariki banatuak ditu. Zurezko bi balkoi ditu, bata txikia sarrerako atearen gainean duena eta bestea bigarren solairuan ia alderik alde iristen dena. Hutsuneak ere zurez inguraturik aurkitzen direlarik. Gai nontzeko fatxadeetan hutsune ugari eta irregulariki banatuak ditu.

(Lezoko Baserriak liburuan argitaratua)

LA BASÍLICA DEL SANTO CRISTO DE LEZO: ESTUDIO HISTÓRICO

ARTÍSTICO

Miguel Azpilicueta Olagüe



Ander Leon

Tarte honetan gomendatuko diezuegun irakurtzeko proposamena ez da ohikoa. Hasteko ez da liburua, aldizkari baten artikulua baizik. Testua "Boletín de Estudios Históricos"-aren 31. zenbakian argitaratu zen 1997an, eta separata moduan Udal Liburutegian aurki dezakegu. Bertan eta titulugatik asma dezakegunez, herriko ondare artistikoaren zati garrantzitsua den Gurutze Santuaren basilikaz hitz egiten digu. Hasieran sarrera historikoa egiten digu, baina berehala eraikineren ezaugarriak aztertzeari ekiten dio: Oina, hormak, dorrea, eranskinak, XX. mendeko erreformak, ...Bigarren atala elizaren barruan dauden artelanei buruzkoa da. Bertan Gurutze Santuaren irudia, burdinazko hesia, erretaulak (zaharra eta oraingoa) eta beiradurak aztertzen ditu. Bukatzeko, eta ikertzaileentzako arlorik interesgarriena hauxe izango da, berak erabili duen dokumentazioaren transkripzioa aurkituko dugu, 1619tik 1985ra elizari buruzko oharrak eta testuak. Laburbilduz, ezinbesteko lana Gurutze Santuaren Basilika ezagutu nahi duenarentzat.

MUSIKA SAKONA GAI



Tomas Garbizu

Gaurko musika-talde askok egiten duten tankera horri, "musika ariña" deitu genezaiok. Ba da ordea goi-mallako musika oherik. Ez diet kalterik egin nai orrelako musika-taldekoei eta asmo onez eusko abestiak an emen zabaldu nairik dabilzan gazteria sutsuari ere. Euskalerriko musikariak zein diran eta noraino iritxi diran orain arte ondo dakigu. Gure etxeko orkesta eta abes-taldekak, zer nolako bidetik dabilzan ikusia dago: Aita Donosti, Usandizaga, Guridi, Sorozabal; bere garaian, gaur ezik, makurrik gabeko musika lankideak; geroztik aurrerapide asko izan baita. Bear bada, ala ta guztiz ere, gaurko egunean naikoa zuten zer edo zer eraberritu. Neronek entzuna diot Aita Donostiari bere "Preludios Vascos" oriek berriz egin bear balitu, alako astinaldi bat emango liekela. Berritu naiak ez dio gizonari pakean uzten. Ala ere jakiñean egon, ez dela guzia berritu bearreko lanaren gora beera; ondo egiña badago, naiz leengo, naiz oraingoa, berekin duela goralmen txalo aundizkia. (...) Eusko musika, mendi sakonetan entzun bedi, eta ez erri beeko gizarte emearen artean.

(Zeruko Argia aldizkarian argitaratua)

bibliografia

Lezoko arteari buruz gehiago jakin nahi baduzue, Andreone Udal Liburutegian, liburu eta artikulua hauek, irakurgai dituzue, besteak beste.

Azpilicueta, M: La basílica del Santo Cristo de Lezo

Isasti, L: Compendio historial de Gipuzkoa

Intxaurrendueta, P -

Urkizu, P: Tomas Garbizu

1901-1989

Murua, A.: Lezoko baserriak

Martinez, J.: Salaverria, el pintor de Lezo en Gipuzkoa

"Lezo" aldizkariko artikulua

Silvan, L: El casco urbano de Lezo y sus principales edificios (2 zenb.)

Lopez, F.: La capilla del Santo Cristo (3. zenb.)

Urkizu-Intxaurrendueta: Garbizu anaiek: Zubigar, Iruubi eta Tege (6. zenb.)

Martinez, J: Elias Salaberria, maestro en Guipuzcoa y pintor vasco (6 zenb.)

Ugalde J.J.: Polentzi Gezala, txistuaz mundua iluzatu duen lezotarra (6 zenb.)

Martinez, J: Elias Salaberria: El pintor (7. zenb.)

Aperribay, J: San Joan Bataiatzailea elizaren aldi historikoak (7. zenb.)

Zurutuza, L: Lezo eta Santiagoko bidea (12. zenb.)

Lau sinadura: Lezoko San Joan Bataiatzailearen elizako hilerrri zaharraz (15. zenb.)

Aurkenerena, J: Marc Legasse eta Lezo (18. zenb.)

Iturri zuzenak izaten dira onena. Beraz, Udal Artxibo Historikoan herriaren historiari buruzko testigantza zuzenak aurki ditzakezue

moko-goxo

Hona hemen herritar gazte talde batek proposaturiko artelan goxo-goxo eta berritzailea

PROPOSATU DIGUTEN PLATERA

Graffiti Alzateko kobazuloetan



OSAGIAK

- Spray pote mordoa
- Plastikozko eskularruak
- Burua estaltzeko zapia
- Azkar alde egiteko zapatila arinak

PRESTAKETA

Gau erdian lagunekin geratu eta, motxila bete spray, aukeratutako paretara abiatu. Aurretik pentsatutako marrazkiaren lehen ukituak eman; paretak koloretzatzen hasi, noizean behin atzera eginda formak egoki egiten ari diren egjatzatu... Horrela, spray poteak bukatzen joaten diren heinean graffitiak forma hartzen du. Ez da ahaztu behar kla-kla-kla egin bitartean hizketaldi goxo bati eustea; herriko azken berriak, baita arteari buruzkoak ere, txutxumutxuak, eta nola ez, herriko kaleetan urteetan agertzen joan diren pintadaren mezuen komentarioa, hala nola, "non daude erroak", "utzi pakian gantxuzketa guziya", "las calles no son para los novatos" edota ondoko herrian, Iztieta auzoan, zegoen "la heroína es la ruina".

O n e g i n !



lehiaketa

Orratx 800! honetan aurkeztuko dizuegun lehiaketa herriaren historiarekin oso lotuta dago. Azpian dituzuen 10 galderen erantzunak beheko kupoian idatzi eta Orratx! aldizkariaren egoitzara ekarri edo bestela Oroitzene AEK euskaltegian eta Aiton Bordan dauden buzoietan sartu. Aldizkaria urratu nahi ez baduzu, fotokopia egin edo aparteko orri batean idatzi. Beste aukera bat e-mailen bidez egitea da, orratx@topagunea.com helbide elektronikora. Asmatzaileen artean opari polita zozketatuko dugu. Zorte on!!!!

1. Zein urtetan markatu zen Lezo eta Pasai Donibane zatitzen dituen muga?

- a) 1770 b) 1870
c) 1670 d) 1570

2. Nor zen Gaztelako erregea 1203. urtean Lezo sortu zenean?

- a) Felipe VI b) Alfonso VIII
c) Carlos II d) Juan I.

3. Nor da Gurutze Santuaren sakristia-ko bidriera nagusian azaltzen den pertsonaia?

- a) San Juan b) San Pedro
c) San Leon d) Santiago

4. Non zegoen Santiagotxoren ermita?

- a) Plazan b) Gaintxurizketan
c) Altamiran d) Kale Nagusian

5. Non hil zuten Juanes de Salaberria?

- a) Plazan b) Gaintxurizketan
c) Altamiran d) Kale Nagusian

6. Non dago lurperatuta Antonio Pildain?

- a) Lezon b) Donostian
c) Madrilen d) Las Palmasen

7. Zenbat baserri zeuden zenbatuta Lezon 1600. urtearen inguruan?

- a) 4 b) 40
c) 80 d) 120

8. Noiz jaio zen Elias Salaberria?

- a) 1880 b) 1883
c) 1886 d) 1890

9. Zenbat metroko altuera du Lezoko punturik altuenak?

- a) 228 b) 367
c) 489 d) 545

10. Noiz sortu zen Orratx! aldizkaria?

- a) 1990 b) 1993
c) 1996 d) 1999

ERANTZUNAK:

1.

2.

3.

4.

5.

6.

7.

8.

9.

10.


IZEN-ABIZENAK:


.....

.....

TELEFONOA:

.....





Aldizkari berezi hau ixteko Jabier Salaberria lezoarrak egindako grabatua erabili nahi izan dugu. Dakizuenez, Lezok ez ezik, Hondarribiak ere 800 urte beteko ditu aurten. Doakiela gure zorionik beroena eta omenaldi xume hau, garai batean bat izan ginen eta.

Lezok

